

2. gaia

PERTSONA FISIkoa (GIZAKIA)

1. Pertsona eta nortasuna
2. Pertsonaren hasiera
3. Nortasunaren amaiera: heriotza
4. Pertsonaren deitura
 - a) Izena
 - b) Abizenak
5. Pertsonaren kokalekua
6. Naziokotasuna
 - a) Espainiako naziokotasuna eskuratzea
 - b) Espainiako naziokotasuna galtzea
 - c) Espainiako naziokotasuna berreskuratzea
 - d) Naziotasun bikoitza
7. Auzotartasun zibila
 - a) Jatorriz eskuratzea
 - b) Auzotartasuna bizilekua dela eta aldatzea
8. Gizakiaren gaitasuna
 - a) Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna
9. Gaitasunaren baldintza aldakorrak
 - a) Adina
 - i) *Adin nagusia*
 - ii) *Adingabetasuna*
 - iii) *Emantzipazioa*
10. Ezgaitasuna eta gaitasuna mugatzea
 - a) Ezgaitasuna
 - b) Zarrastelkeria

1. PERTSONA ETA NORTASUNA

Gizakia zuzenbidearen funtsezko subjektua da, eta gaitasuna du (baldintza batzuk betez gero) harreman juridiko-ekonomikoetan parte hartzeko. Dena dela, legeetan ez dira gizaki, gizon edo emakume hitzak aipatzen, pertsona fisiko elea baizik.

Hori horrela da, harreman juridiko-ekonomikoetan ez direlako soilik gizakiak (banako gisa ulertuta) kontuan hartzen, aitzitik, elkarte eta erakunde mota desberdinak aintzat hartzen dira. Azken hauek, zuzenbideak pertsonatu egiten ditu, pertsona juridikoaren kontzeptua sortuz. Adibidez, zergak, pertsona fisikoek zein pertsona juridikoek ordaindu beharko dituzte.

Historian zehar, gizaki guztiak ez dira pertsonak izan, hots, ez dute gaitasunik izan eskubide eta betebeharren subjektuak izateko (esklabuak, gatibuak, emakumeak e.a.).

Nazioarteko mailan ere jasotzen da gizakiaren kontzeptu hau, 1948. urtean Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala egin baitzen, "*Gizaki guztiek dute zuzenbidean pertsonalitate juridikoa izateko eskubidea*".

Zuzenbidea gizakiak sortu duen zerbait da, eta hortaz, historian zehar gertatu ez den bezala, logikoki, zuzenbideak pertsona fisikoaren izaera onartu behar du. Dena den, pertsona juridikoen egoera ez da berdina. Azken hauei, zuzenbideak berak onartzen baitie harreman juridiko-ekonomikoetan parte hartzeko ahalmena; eta hain zuzen ere, onarpen horretatik datorkie zuzenbidearen subjektua izateko gaitasuna.

Azaldutakoagatik ondorioztatzen da zuzenbideak subjektu izateko gaitasuna onartzen ez dien bestelakoei ezin zaiela zuzenbidearen subjektutzat hartu. Hortaz, "gauzak" izango dira eta subjektuak direnen interesak betetzeko bitartekoak kontuan hartuko ditugu.

2. PERTSONAREN HASIERA

Erromatar juristek pertsonaren izate fisikoaren hasiera eta izate juridikoaren hasiera batera gertatzea egokitu zuten eta hortaz, jaiotzak pertsonalitate juridikoaren hasiera suposatzen zuela erabaki zuten. Bada, ondoko erregela asmatu zuten: jaiotzak pertsonalitate juridikoaren hasiera dakar.

Dena den, aipatu erromatar juristek, aita bere hil ondoko seme-alabak oinordetu ahal izan zezan, ondoko fikzioa asmatu zuten: zenbait ondoriotarako, sortu eta jaio gabeko umekiari izate naturala onartzen zioten, pertsonalitatea onartzen ez zioten arren. Beranduxeago ere, aipatu erregela ez zen aldatua izan, kristautasunak bizitzaren hasiera sorkuntza unean ematen zela adierazten zuen arren.

Aipatu erabakiak umekiari jaiotzatik eskubideen titularra izatea ematen zion eta beraz, ondoko egoeretan, umekia zela medio, alargunak hildakoaren ondasunak eskuratzen zituen hildakoaren familiari honen jaraunspena ukatuz. Hau gertatzeko, baldintza hauek bete behar ziren: hil ondoko seme-alaba izatea edo ama erditzearen ondorioz hiltzea eta haurra jaio eta gutxira hiltzea.

Ondorio hori onargarria gerta zedin, jaioberriari bizitzeko nolabaiteko gaitasuna zuenaren adierazpenen bat eskatzen zitzaion, aztertu izan dugun ondorioak familiaren ondarean garrantzi handia baitzuen. Gauzak horrela, haurra eskubideen titularra izateko eta ondasunen norakoa aldatzearen arriskua onartzeko, zenbait baldintza ezartzen ziren. Zuzenbide erromatarrak umekia bizirik jaiotzea galdatzen zuen eta gainera bizigai izatea eskatzen zuen.

Aipatu erregela, gaur egun, Kode Zibilaren 30. artikuluan jasotzen da. Honen arabera, "*Nortasuna, bizirik jaiotze unean, eskuratzen da, behin amaren sabeletik gustiz banaduz gero*" Ikus dezakegunez, gizaki baten jaiotzak, artikulua honetan agertzen diren baldintzak (bizirik jaiotzea eta amaren sabeletik gustiz banatzea bigarrena) betetzen baldin ez baditu, gizaki hori zuzenbide zibilak ez du pertsonatzat hartuko, ez du nortasunik izango alegia, eta hortaz, ezin izango ditu eskubideak eskuratu ezta eskubideak besterendu ere. Hilaurra litzateke, legalki jaiotzat hartuko ez duguna eta Erregistro Zibileko Legearen 44. artikulua arabera, erditze honek ez du aipatu erregistroan inskripziorik eragingo. Artikulu honek, idazkera berria du Erregistro

Zibileko 2011ko Lege berriaren ondoren,¹, honexek dira Erregistroan inskriba daitezken datuak:

Datu inskribagarriak

EZLren **4. artikulua**: *Datu eta egitate inskribagarriak*

1. *Jaiotza*
2. *Filiazioa (aita-amatasuna)*
3. *Izen-abizenak eta beraien aldaketak*
4. *Sexua eta sexu aldaketa*
5. *Naziokotasuna eta auzotartasuna*
6. *Emantzipazioa eta adinaren onura*
7. *Ezkontza, nulitate, banatze eta dibortzioa.*
8. *Ezkontzaren eraentza ekonomikoa*
9. *Guraso eta seme-alaben arteko harremana*
10. *Pertsonen gaitasuna eta bere aldaketak*
11. *Tutela, kuratela eta veste ordezkariak*
12. *Gaitasunez gutxituen ondarea*
13. *Autotutela eta alde aurretiko ordezkapenak*
14. *Abzentzia eta heriotzaren aldarrikapenak*
15. *Heriotza*

Jaiotzaren froga

Estatuak ziurra diren tresnak finkatu behar ditu jaiotza egiaztatzeko eta noiz gertatu den jakiteko, jaiotzak zehazten baititu nortasuna eta bere ezaugarri guztiak. Tresna horiek Erregistro Zibilaren bidez antolatzen dira, eta baliabide horien bitartez froga ditzakegu pertsonaren izateari buruzko inguruabarrak (jaiotzaren data, ordua eta lekua, sexua eta, batzuetan, bere seme-alabatasuna) bai banakoaren interesen mesedetan, bai interes orokorraren mesedetan ere.

Jaiotzaren inskripzioa adierazpen baten bitartez egiten da, ofiziala den agiri batean egin ahal da. Aipatu adierazpena, horretara behartuta dagoen pertsonak edo egitatea ezagutzen duenak egingo du (gurasoak, ahaideak e.a.), eta agiriari medikuaren edo emaginaren ziurtagiria atxikiko zaio. Jaiotzatik 24 ordura egin behar da, aipatu epean ez egiteko zilegizko ziorik frogatzen bada salbu. Inskripzioa ez da nortasuna eskuratzeko baldintza, froga bitartekoa baizik. Erregistro Zibileko legearen 44 eta 48 artikuluetan arautzen da.

Seme-alabatasuna edo jatorria.

EKren 14. artikuluan herritar guztien legearekiko berdintasuna ezartzen da, eta bereizkeriak debekatzen ditu, horien arteko kariak jaiotzagatiko bereizkeria ere ezin izango dela nagusitu xedatzen du. Halaber, EKren 39. artikulua indartzen du berdintasun printzipio orokor hau, honela esanez: "*Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik, jatorria alde batetara utziz eta hauen amena barauon egoera zibila edonolako izanik*".

¹Erregistro Zibileko 20/2011, uztailaren 21eko Legea (EZL)

Konstituzioaren printzipio berri honek Kode Zibilaren aldaketa behartzen du. Kode Zibilak araututako familia jatorria, guraso agintea eta ezkontzaren ondasun eraentza aldatu zituen maiatzaren 13ko 11/1981 Legeak eta 21/1987 Adopzioari buruzko Legeak. Aipatu Kodearen aldaketarekin seme-alaben izendura ezberdinak desagertzen dira eta hiru mota soilik mantentzen dira: ezkontzakoak, ezkontzaz kanpokoak eta adoptatuak, guztiek eskubide berdinak dituztelarik. KZren 108 artikulua ezartzen duenaren arabera *"Seme-alabatasuna naturaren arabera eta adopzio bidea gauza daiteke. Naturaren araberako seme-alabatasuna ezkontzazkoa eta ezkontzaz kanpokoak izan daiteke. Seme-alabatasuna ezkontzazkoa da, aita eta ama elkarrekin ezkontuta daudenean.*

Ezkontzako eta ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunak, bai eta adopzio bidezkoak ere, ondore berberak sortzen dituzte kode honen xedapenekin bat etorritik".

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana juridikoek dirauten bitartean, ondorengo edukia izango du:

a) Seme-alabek gurasoen deiturak edukitzeko duten eskubidea KZren 109. artikuluari jarraiki: *"Seme-alabatasunak zehazten ditu abizenak, legean xedatutakoaren arabera".*

b) Elkarrekiko mantenu eskubidea, baldin eta KZren 142. artikuluan araututako inguruabarrak betetzen badira: *"Mantenu gisa hartzen da, elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia".*

Halaber, mantenu-hartzailea adingabea den bitartean, mantenuak bere barruan hartzen ditu mantenu-hartzaile horren hezkuntza eta haziera; mantenu-hartzailea adin nagusikoa izanik ere, horren heziketa oraindik ez denean bukatu berari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz, heziketa horren gastuak ere mantenuaren barruan sartzen dira".

c) Oinordetzari dagokiona, ezkontzako, ezkontzaz kanpoko zein adoptatutako seme-alabek eskubide bereak baitituzte ((KZren 807. art. eta ondorengoak).

Horrez gain, seme-alabek adingabeak direnenean, eurek babesteko betebeharra duten guraso agintea euren gain hartzen dute.

3. NORTASUNAREN AMAIERA: HERIOTZA

Kode Zibilaren 32.1. artikulua arabera, *"Pertsonen heriotzak nortasun zibila azkentzen du".*

Historikoki, heriotzaz kanpo ezagutu dira beste nortasun azkentze erak: erlijio profesioa hartzeagatik, heriotza zigorrari, betirako behartutako lanei, edo deportazioari atxikitako zigorra bezala, besteak beste. Gaur egun, ez dago beste nortasun azkentze mota heriotza fisikoa baino.

Pertsonaren heriotzak erabateko aldaketa dakar bere inguruan. Alde batetik, pertsonaren gorputza hilotz bihurtzen da, eta pertsonaren izaeran oinarritutako harreman juridikoak azkentzen dira, haien artean, garrantzitsuenak honako bi hauek direla:

a) Familia eremuan, guraso agintea eta tutoretza azkentzen dira. Ezkontzari

dagokionez, eraentza ekonomikoa kitatu behar da eta ezkontza bera deuseztatzen da.

b) Ondare eremuan, hildakoaren norberaren eskubideak azkentzen dira, eta azkentzen ez diren ondarezko eskubideak oinordekoei eskualdatzen zaie, ondarea jaraunspen bihurtuz.

Aipatu dugunez, heriotzak gorputza hilotz bihurtzen du. Horrek aldaketa bat dakar, hots, gorputza gauzatzea, gauza izaera hartzen baitu. Halere, hilotzak eraentza berezia du ondarez kanpo geratzen baita eta beraz, ezinezkoa da bere gain eskubideak eratu. Arlo honetan, hilotzaz baliatzearen inguruan sortzen diren arazoei buruz, biziak direnek organo birlandaketaren beharra dutelako, urriaren 27ko 30/1979 Organoen Birlandaketari buruzko Legeak arauketa egokiago azaltzen laguntzen du.

Heriotzaren momentua

Heriotzaren momentuari dagokionez, legeria zibilak ez du esaten pertsona zein unetan jo behar den hildakotzat. Erregistro Zibilean heriotza inskribatu ahal izateko, "zalantzarik gabeko seinaleak" egon behar direla xedatzen du Erregistro Zibilaren Legeak. Medikuntza zientziaren uneko egoerak erabaki beharko du nola ezagutu behar den heriotza egoera, horrela, mediku agiriak egiaztatuko ditu heriotzaren data, ordua, eta bere inguruabarrak.

Hildakoari organo bat erauzte aurreko heriotza egiaztapena, soilik Organoen Birlandaketari buruzko Legea garatzen duen otsailaren 22ko 426/1980 Errege Dekretuan arautzen da. Egiaztapen hori garunen heriotzan oinarritzen da, bizitzarekin bateraezinak diren garuneko lesio atzeraezinekoak daudenean. "Garuneko heriotza" gertatu ondoren, hiru medikuek izenpetu beharko dute heriotza-ziurtagiria.

Heriotzaren froga

Heriotzaren froga Erregistro Zibilean inskribaturiko heriotza adierazpena da. Heriotza-ziurtagirian oinarritzen da inskripzioa. Halere, heriotzaren arrazoiak ezin izango dira inskribatu. Hilotza lurperatu edo errausteko baimenik ez da emango heriotza inskribatu baino lehen. Erregistro Zibileko legearen 62-67 artikuluen artean arautzen da.

4. PERTSONAREN DEITURA

a) Izena

Izena pertsona bereizteko eta besteengandik bereizteko dagoen deitura da. Guraso agintetik eratortzen den betebeharra da.

Izena izateko eskubidea ez dago Konstituzioan jasorik, Erregistro Zibilaren Legean eta Kode Zibilean baino. Erregistro Zibilaren Legearen 51 artikulua debekatzen du bi izen soil edo konposatu bat baino gehiago ezartzea.

Pertsonaren duintasunaren babesean aipatu Legeak ez ditu onartzen pertsona

objektiboki kaltetzen duten izenak ere ez, EZLren 51.2ren arabera.

Sexuen arteko bereizketa era argi batean uzten ez duten izenak ez dira ere onargarriak izaten. Bizirik dauden neba-arrebei izen berdina ezartzea ez da onartzen.

Izena aldatzea soilik Erregistro Zibilaren Legeak onartzen dituen kasuetan da onargarri. Izena aldatzeko eskaera interesdunak berak igorri beharko du, ordezkapen orokorrik onartzen ez baita. Dena dela, 1977ko urtarrilaren 4ko Legea baino arinagoko ezarritako izena bada eta beste hizkuntza ofizialaren itzulpena besterik eskatzen ez denean, Erregistroaren arduradunaren aurrean interesdunak egindako adierazpen soila onartuko da.

Beste aldetik Erregistro zibilean egin da aldaketa bat bere 54. artikuluan. *Pertsonen sexuari dagokion aipamena aldatzeko 3/2007, martxoko 15eko* legearen eskutik. Bertan arautzen da nola transexualitatearen kasuetan alda daiteke jatorriz inskribatu zen sexu bati zegokion izena, eta orain beste sexuari dagokiona izango da ezarriko dena. Era berean desagertu da aipamen bat debekatzen zuena atxikigarriak ezartzea izen gisan. Erregistro Zibileko Legeak beren beregi aurreikusten du sexu aldaketari dagokion izen aldaketa inskribatzea ere 83. Artikuluaren arabera. Inskripzio hori babestua da argitaratzeari dagokionez.

b) Abizenak

KZren 109. artikulua adierazten du: *"Seme-alabatasunak zehazten ditu abizenak, legean xedatutakoaren arabera"*

Seme-alabek, adin nagusitasunera iristean, eskatu ahal izango dute abizenen ordena alda diezaieten.

Izen-abizenei buruzko Azaroaren 5eko 40/1999 Legeak aldatu zuen Kode Zibilaren sistema, gurasoen arteko berdintasuna bultzatzeko asmoz. Beraz, orain KZren 109 art.aren arabera, seme-alabatasuna lerro bietatik eratorriko balitz, aita eta ama adostasunez erabaki dezakete abizenen ordena. Horrenbestez, lehenengo abizena izan daiteke aitaren lehena edo amaren lehena. Baina adostasunik ez balego, arau orokorraren arabera, lehendabizi aitaren abizena eta gero amarena ezarriko dira. Behin seme-alaben arteko nagusiari abizenen ordena ezarri gero hurrengoekin mantendu beharko da.

Erregistro Zibilaren Legeak arautzen du abizenen jartzeko prozedura lerro bakarreko seme-alabatasunaren kasuak 49 artikuluen 1. atalean. Erregistro Zibileko Legearen 49 artikuluen bigarren atalaren arabera, guraso bat bakarrik balego, bere bi abizenak hartzen ditu. Arau honen salbuespen gisa ezkontzaz kanpoko seme-alaben kasua dugu guraso bakarra ama denean, bere bi abizenen ordena alda baitezake.

Abizenen ordena soilik alda daiteke ondoko kasuetan:

a) Generoko indarkeriaren ondorioz, abizenen ordena alda daiteke EZLaren 55 artikuluen arabera.

b) Seme-alabak, 16 urtera heltzerakoan, inolako mugarik gabe eska dezake abizenen ordenaren aldaketa, horretarako Erregistro Zibilaren arduradunaren aurrean horren aldeko adierazpena eginez. Aukera hau bizitzan behin soilik erabil daiteke EZLaren 53 artikuluen arabera..

Ondoko arrazoiengatik alda daitezke abizenak:

- a) "Exposito" edota antzeko abizenak aldatzeko.
- b) Arauen urrapena dela medio ezarri izan denean abizenen bat.
- c) Atzerriko hizkuntzan ezarritako abizenen bat gaztelaniara egokitzeko.

Gaur egun, gaztelaniazko grafian idatzirik dauden euskal abizenak, zein beste hizkuntza ofizialetakoak ere, hizkuntza horren grafia jatorrarekin idaztea eska daiteke, beharrezko diren zuzenketak eginez (Erregistro Zibilaren Legearen 53.4 art.).

Izena eta bi abizenekin inskribatzen dira herritar guztiak, ordenu publikoko arrazoiak direla medio. Izenaren erabilpena legezko beharra da, eta norbera identifikatzea beste izen-abizenekin zigortua dago.

5. PERTSONAREN KOKALEKUA

Kode Zibilak arautzen du kokalekuaren zehazte eta esanahi juridikoa 40. artikuluan xedatzen duenean *"Eskubideak egikaritu eta betebeharrak zibilak betetzeko, pertsona fisikoen egoitza da euren ohiko bizilekuari dagokion lekua, eta, hala denean, Prozedura Zibilari buruzko Legeak zehazturikoa"*. Hau da, pertsonak bere eskubideak erabiltzeko eta eginbeharrak betetzeko zuzenbideak kokatu duen tokia da.

Kokalekuak, beste funtzioak ere betetzen ditu adibidez, epaile naturala zehazteko balio du.

Kokaleku zibila eta administrazio auzotartasuna ez dira gauza bera, azken hau ere ohiko bizilekua kokaleku zehatz batean izatearen menpe egon arren. Administrazio zuzenbidearentzat udalerrri bateko egoiliarra, udalerrri horren ohiko biztanlea izateagatik udal erroldan inskribaturik dagoena da. Egoiliarrak auzokide eta helbideratuak izan daitezke. Auzokideak udalerrri bateko adin nagusiko eta Erroldan inskribaturiko espainiarrak dira. Helbideratuak, ordea, adingabeko espainiarrak eta Erroldan atzerriar egoiliar gisa inskribaturiko atzerriarrak dira. Gehienetan auzokide eta helbideratu kontzeptuak bat etortzen dira baina pertsona bat udalerrri batetan egoiliarra izateak ez du esan nahi bere kokaleku zibila udalerrri horretan egon behar duenik.

Ohiko kokalekua pertsona bizi den lekukoa da eta bertan egoteko borondateak agintzen du. Kokalekua lortzeko ez da inolako epea bete beharrik.

6. NAZIOKOTASUNA

Naziokotasunak pertsona eta estatu jakin baten arteko lotura ezartzen du. Estatu bakoitzak zehazten du naziokotasuna zein kasutan eskuratu eta galtzen den. Konstituzioak horrela xedatzen du bere 11.1. eta 2. artikuluetan: *"1. Espainiako naziokotasuna legeak finkatzen duen eran lortu, gorde eta galtzen da.*

2. Sorterri espainiarra denari ezin zaio bere naziokotasunaz gabetu".

Naziokotasunak estatu batean herritarrek dituzten eskubide eta betebeharren

esparrua zehazten du. Gaur egun, Europar Batasunarekin naziotasun kontzeptuak zenbait aldaketa izan ditu, egoera berri honetara egokitu izan baitira Europar Batasuna osatzen duten estatuak. Beraz, Europar Batasuneko edozein estatu partaideko herritarrek atzerritartasun pribilegiatua du, beste estatu partaideko herritarra balitz bezala jardun baitezake.

a) Espainiako naziokotasuna eskuratzea

1. Jatorriz:

a) Espainiako naziokotasuna "iure sanguinis" eskuratzea

Kode Zibilaren 17. artikulua zehazten du 1.a) atalean: "*Jatorrizko espainiarrak dira: a) Aita edo ama espainiarrengandik jaiotak*". "Ius sanguinis" delakoaren printzipioa eratzen da naziokotasuna eskuratzeko era honetan, naziokotasuna gurasoengandik seme-alabengana pasatzen da, jaiotze tokia zein izan den kontuan izan gabe. Guraso bietariko bat espainiarra izatea nahikoa da seme-alabei naziokotasuna pasatzeko, Kodearen aipatu artikulua "aita edo ama" esaten baitu.

b) Espainiako naziokotasuna "iure soli" eskuratzea

Kode Zibilaren 17.1. artikulua b), c) eta d) atalek jasotzen dituzte naziokotasuna eskuratzeko ondoko kasu hauek:

1. Gurasoak atzerritarrak izanik, Espainian jaiotak (ius soli), ondoko baldintzaren bat beteko balitz, Espainian jaiotzea soilik ez baita nahikoa naziokotasuna jatorriz eskuratzeko:

* Gurasoak atzerritarrak dituztenak, eurretan bat bederen Espainian jaiotakoa balitz.

* Espainian jaiotakoa, baina guraso atzerritarrak dituztenak, aitak edo amak naziotasunik ez balu, edo batoren zein bestearen legeriek ez baliote seme-alabari naziotasunik eraxkitzen. Kasu honetan, Espainiako naziokotasuna eraxkitzen zaie, bestela, aberrigabeak izango litzateke.

* Espainian jaiotakoa baina gurasoak zeharo ezezagunak dituzten pertsonak.

c) Espainiako naziokotasuna adopzioz eskuratzea

Kode Zibilaren 19. artikulua jasotzen du kasu hau. Espainiako jatorrizko naziokotasuna eraxkitzen zaie espainiarrek adoptatzen dituzten adingabeko atzerritarrei.

Nahikoa da guraso adoptatzaileen bietariko bat espainiarra izatea adoptatuari espainiar naziokotasuna eraxkitzeko.

2. Aukeraz:

Legeak atzerritar jakin batzuei Espainiako naziokotasuna aukeratzeko eskubidea ematen die. Eratorritako eskuratzea dugu hau, pertsona horrek zuen lehengo naziokotasuna aldatzen baita.

a) Espainiako naziokotasuna jatorri-gutunaren bidez eskuratzea

Kode Zibilak 21.1. artikuluan aurreikusten du naziokotasuna eskuratzeko era hau: *"Interesdunak salbuespeneko inguruabarrak dituenean, Espainiako naziokotasuna eskuratzen da, errege-dekretuaren bidez eta herritartze-agiria emanez"*.

Betidanik pentsatu izan da botere publikoak naziokotasuna eman diezaiokeela egoki deritzon pertsonari. Horrela gertatzen da ere Espainiako estatuko legerian, baina baldintza batzuk bete beharko dira, haien artean, interesatuak egindako eskaria, interesatua 18 urtetik gorakoa izatea, eta eskaera egileak inguruabar bereziak izatea. Baldintza horiek Administrazioak baloratuko ditu. Gutuna emanez gero, Erregistro Zibilean inskribatzen da, izan ere, inskripzio hori eratzaila da.

b) Espainian bizilekua izatearen bidez naziokotasuna eskuratzea

Ohiko bizileku Espainian duten eta espainiar izateko borondatea adierazten dutenaren kasuak izango dira hauek. Kode Zibilaren 21.2. artikulua xedatzen duenaren arabera: *"Espainian bizilekua izateagatik, halaber, Espainiako naziokotasuna eskuratzen da, hurrengo artikulua zehaztutako baldintzetan eta justizia-ministroak emanda; ministroak ezezkoa eman diezaioke naziokotasuna emateari, ordena publikoa eta nazioko interesa oinarri duten arrazoiengatik"*.

Bizilekua izateko epeak:

1. Epe orokorra: Kode Zibilak 22.1. artikuluan ezarritako epe orokorra 10 urtekoa da. *"Bizilekua izateagatik naziokotasuna emateko, beharrezkoa da bizileku hori hamar urtetan zehar izatea"*

2. Bost urteko epea: Bost urte nahiko izango dira errefuxiatu izatea eskuratu dutenentzat. (KZren 22.1. art.).

3. Bi urteko epea: bizilekua izateko epea murrizten da Iberoamerikako herritakoentzat, Andorra, Filipina Uharteetakoentzat, Ekuatore Ginea, Portugal eta herri sefardietakoentzat (KZren 22.1. art.).

4. Urtebeteko epea: kasu hauek KZren 22.2. artikuluan xedatzen dira, eta Espainiarekiko lotura garrantzitsua duten atzerritarren kasuak dira.

- a) Espainiako lurraldean jaioarentzat.
- b) Aukeratzeko ahalmena garaiz erabili ez duenarentzat.
- c) Jarraiko bi urtetan eta lege-aginduz, Espainiako herritar edo erakunde baten tutoretza, zaintza edo harrerapean egon denarentzat, eskabidea egiteko unean oraindik egoera horretan izan arren.
- d) Eskaera egitean espainiar batekin urtebete ezkondata daramanarentzat, legez edo egitez banandurik ez badago.
- e) Espainiar baten alargunarentzat, ezkontidearen heriotzaren unean, legez edo egitatez bananduta ez balego.
- f) Espainiatik kanpo jaio denarentzat, horren aita, ama, aitona edo amona jatorriz espainiarra izan bada.

b) Espainiako naziokotasuna galtzea

Espainiako jatorrizko naziokotasunaren galtzeko arrazoiak beti borondatezkoak izango dira, arestian aipatu dugun EKren 11. artikulua dionez, jatorrizko espainiarrari

ezin baitzaio naziokotasuna ukatu.

Jatorrizko naziokotasuna galtzeko arrazoiak:

1. Uko egitea: KZren 24.3. artikulua ezartzen du kasu hau. Uko egitea baliozko izateko beste naziotasun bat hartzea beharrezkoa da.

2. Beste naziotasun baten borondatezko eskuraketa: espainiarrek ez dute Espainiatik kanpo bizi behar naziokotasuna galtzeko, nahikoa da naziotasun berria eskuratzen denetik hiru urte igarotzea. Era honetan, atzerrian naziokotutako espainiarrek, epe horretan naziotasun bikoitza izango dute (KZren 24. 1 eta 2. art.).

c) Espainiako naziokotasuna berreskuratzea.

Jatorrizko espainiarrak beti berreskuratu ahal izango du galdutako naziokotasuna, Kode Zibilak 26. artikuluan ezarritako baldintzak beteko balitu:

1. Espainian legezko bizilekua izatea.
2. Naziokotasuna berreskuratzeko nahia aitortzea Erregistro Zibileko arduradunari.
3. Ordura arte izandako naziokotasunari uko egitea.
4. Naziokotasuna Erregistroan inskribatzea, inskripzio eratzailera izanik.

d) Naziotasun bikoitza

Pertsonak normalean naziotasun bakarra izango du, baina zenbait kasutan pertsona berak bi naziotasun aldi berean izan ditzake. Estatuak onartzen du horrela gertatzea eta EKren 11.3. artikulua jasotzen du. Artikulu honetan, naziotasun bikoitzeko hitzarmenak egiteko aukera onartzen da, bai Iberoamerikako herriein, baita Espainiarekin harreman estuak izan dituen beste herriein ere. Arrazoi horien ildotik, KZren 24.2. artikulua xedatzen du Iberoamerikako herrietako, Andorra, Filipina Uharteetako, Ekuatore Ginea edo Portugaleko naziokotasuna eskuratzeak ez dakarrela Espainiakoa galtzea.

7. AUZOTARTASUN ZIBILA

Espainiar Estatuaren sistema zibila anitza da, komunitate autonomo batzuek foru zuzenbideak baitituzte. Auzotartasunak, Espainiako lurraldean dauden zuzenbide zibilen artean bakar baten aplikazioa suposatzen du.

Espainiako naziokotasuna dutenek, auzotartasun zibila ere izango dute, zuzenbide zibil komuneko lurraldeari ala foru zuzenbideko lurraldeari dagokiona, hain zuzen.

Auzotartasun zibila nola eskuratu:

a) Jatorriz eskuratzea:

Jatorrizko auzotartasun zibila jaiotzaren momentuan eskuratzen da. Naziokotasunarekin gertatzen den bezala, KZren 14. artikulua bi irizpide erabiltzen ditu jatorrizko auzotartasun zibila eratzikitzeko: *ius sanguinis* batetik; eta *ius soli* bestetik.

1. *ius sanguinis* eskuratzea: irizpide honen bidez, gurasoen auzotartasun zibila seme-alabei eratzikitzen zaie jaiotzaren momentuan. Arau bera aplikatzen da auzotartasun berdina duten gurasoek adoptatu dituzten adingabeko seme-alaben kasuan.

2. *ius soli* eskuratzea: guraso ezezagunak dituzten haurren auzotartasun zibila jaiotzaren tokiari dagokiona eratzikiko zaie.

3. Auzotartasun zibila eskuratzea gurasoek auzotartasun desberdina duten kasuetan.

Kasu horiek xedatzeko KZren 14. artikuluan zenbait arau jasotzen da jaiotako edo adoptatuaren auzotartasun zibila zein den zehazteko. Aipagarriena honako hau da: gurasoek auzotartasun zibila desberdina izanez gero, bataren zein bestearen auzotartasuna eratziki dakieke seme-alabei. Aukera hori Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean adierazi eta honek aipatu aukera inskribatu beharko du. Guraso biek egin beharko dute aitortpena, biek batera guraso agintea erabiltzen dutenean.

Aipatu kasuan legeak seme-alabari jatorriz eskuratu auzotartasun zibila aldatzeko aukera ematen dio 14 urte bete dituenetik eta emantzipatu eta urtebete igaro arte.

Horrez gain, legeak ezkontideei besteak duen auzotartasuna eskuratzeko ahalmena ematen die, ezkontzak berez ez baitu ezkontideen auzotartasun zibila aldatzen. Hori dela eta, KZren 14.4. artikulua horrela dio: "*Legez edo egitez banandua ez dagoen ezkontideak beste ezkontidearen auzotartasun zibila eskura dezake edozein unetan*". Legeak xedatzen duen aukera hau honako xedea du: familia osoak auzotartasun bakarra izatea.

b) Auzotartasuna bizilekua dela eta aldatzea:

Bizilekua jatorrizko tokitik kanpo izateak aukera ematen dio interesatuari bizilekuari dagokion auzotartasun zibila eskuratzeko.

Hortaz, Kode Zibilak bi aukera aipatzen ditu:

a) Bizilekua bi urtetan izatea: KZren 14.5. artikulua arabera "*Auzotartasun zibila eskuratzen da:*

1) *Jarraika eta bi urtetan zehar, toki batean bizilekua izatearekin, baldin eta interesdunak adierazten badu bere borondatea hori dela*". Aukera hau egiteko adin nagusikoa izatea edo emantzipatua egotea beharrezkoa da.

2) *Jarraika eta hamar urtetan zehar, toki batean bizilekua izateagatik, epe horretan aurkako adierazpenik gabe*."

8. GIZAKIAREN GAITASUNA

a) Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna

Doktrinak bi gaitasun mota bereizten ditu: alde batetik gaitasun juridikoa, hots, pertsona orok pertsona izateagatik soilik, eskubideen eta obligazioen subjektu izateko duten gaitasuna; eta bestetik jarduteko gaitasuna, hau da, titular deneko eskubide eta obligazio horiek gobernatzeko duen gaitasuna.

Teorian gizaki orok gaitasun juridiko osoa du: edozein eskubide izateko gaitasuna (etxe baten jabe izateko, nahiz eta inoiz ere etxe baten jabe izan ez). Ahalmen abstraktu hau ez zen beste garaietan pertsona ororen eskutan egoten alegia, esklaboen kasua, emakumeena, e.a.

Adingabetasunak edo ero egoteak eta abarrek ez diote gaitasun orokor honi oztoporik egiten; ezen jaio berria, edo eroa edo krimen latzenetako erruduna ondasun ugarien jabe izan daiteke, baita ehunaka milioiren zordun edo hartzekodun, edo jaraunsle edo sozietate anonimo bateko akziodun ere. Hori dela eta, pertsonak berak eskubide eta betebeharrak horiek berez gauzatzeko gaitasunik ez duenez, legeak ordezkariak (tutorea, gurasoak, e.a.) izendatuko dizkio. Beraz, pertsona fisikoaren ezgaitasunak legezko ordezkariaren bidez beteko dira.

Gaitasun juridikoaren kontzeptuari, jarduteko gaitasunarena kontrajartzen zaio. Egintza edo negozio zehatz bati dagokionez, pertsona bera aipatu egintza edo negozioa egiteko gai dela esan nahi du, ez duela legezko ordezkariarik behar alegia.

Gaitasun juridikoa gizaki orori dagokio, jaiotzatik eskuratu eta hiltzean galtzen baitu. Gaitasun juridikoak pertsona guztiontzat eduki berbera du eta ezin daiteke murriztu. Aitzitik, jarduteko gaitasuna, zuzenbidearen arloan eragingarritasunez aritzeko legeak aintzat hartzen duen gaitasuna dela esaten da.

Zuzenbideak jarduteko gaitasun orokorra zein den zehazten du, hots, ezgaitua ez den adin nagusiko banakoari dagokiona, eta adin desberdin edo handiagoa eskatzen ez duten egintza edo negozio guztiak burutzeko ahalbidea da. Jarduteko gaitasuna pertsonaren askatasunaren adierazpena da, pertsonari bere interesak bere kabuz defendatzeko ematen dion aldetik; hori dela-eta, beharrezkoa da pertsonak berak bere egitateen ondorioak neurtu ahal izateko behar den heldutasuna edukitzea.

Espainiako legeen arabera jarduteko gaitasun osoa adin nagusitasunarekin eskuratzen da, 18 urte betetzean alegia (EKren 12. artikuluan, KZren 314. eta 315. art.ak). Hortaz, adingabekoek eta norbera gobernatzeko gai ez direnek soilik, izango dute beren jarduteko gaitasun orokorra mugatua.

Dena dela, jarduteko gaitasun orokorretik at, gaitasun singularrak daude. Hauetan, legeak, adin nagusia baino, adin helduago edo txikiagoa eskatuko du. Esate baterako, testamentua 14 urte bete duenak egin dezake bere kabuz; aitzitik adoptatzeko 25 baino gehiago izatea eskatzen da. Dakusagunez, legeak zenbait kasutan jarduteko gaitasuna ez den, beste gaitasun bat eskatuko du. Dena dela, gaitasun singular hauek salbuespeneko kasuak dira, hortaz, legeak ezer berezirik aipatzen ez duen kasuetan eskatuko den jarduteko gaitasuna orokorra da.

9. GAITASUNAREN BALDINTZA ALDAKORRAK

a) Adina

Pertsonaren adinak jaiotzatik une zehatz batera arte bizi izandako denbora adierazten du. Betidanik, pertsonak egintza juridiko eragingarriak burutzeko ahalmena izan dezan eta bere egoera pertsonala zehazteko, zuzenbideak kontuan izan duen datuetariko bat adina izan da.

i) Adin nagusia.

Printzipioz, egintza juridiko eragingarriak burutzeko ahalmena pertsonaren gaitasun naturalarekin loturik dago: gizabanakoak burutzen dituen egintzak eta beren ondorioak ulertzeko duen ahalmena, bere heldutasuna alegia. Halere, trafiko juridikoaren segurtasunak irizpide trinkoak erabiltzea galdatzen du, bestalde, gizabanakoaren egoera juridikoa ez da berdina bere bizitzan zehar; bere bizitzaren lehen etapetan babeseta eta bizi ahal izateko bitartekoak behar ditu eta hauek zuzenbideak bermatu behar ditu, pertsonak, jaio denean, ez baititu bere ahalmen fisiko eta psikiko osoak.

Espainiako zuzenbideak 18 urtean finkatzen du adin nagusitasuna, gizabanako guztiak adingabeak ala adin nagusikoak 18 urteko muga horren arabera izango dira, eta ez, ordea, gizabanako bakoitzak duen gaitasun edo heldutasuna kontuan hartuz. Zuzenbide erromatarrean adin ezberdinak bereizten ziren (infans, impuber, puber), baina lege antolaketa moderno guztietan, adin nagusitasuna ala adingabetasuna baino ez da aurreikusten.

Dena dela, badira beste adin esanguratsuak ere, hara nola 12, 14 edo 16 urtekoak, eta emantzipazioaren fenomeno horiekin batera.

Alderantziz, ez da arautzen adinekoa izateak pertsonaren gaitasunean izan dezakeen eragina eta historian zehar ere, ez da aukera hori arautu; aitzitik, zaharra izateak berez gizartean maila garrantzitsua edukitzea zekarren. Badira adinez zaharrak direnak babesteko instituzioak, haien artean tutoretza hain zuzen, baina horretarako ezgaitasunaren adierazpen judiziala beharrezkoa da, adin nagusikoen jarduteko gaitasuna erregela orokorra baita.

ii) Adingabetasuna

Adingabetasunarekin adierazten da, pertsona jaio denetik 18 urte bete eta adin nagusitasuna lortzen duenera arteko egoera. Adingabetasunaren egoera horrek bi ezaugarri ditu: batetik, adingabeak murrizturik du jarduteko gaitasuna; eta bestetik, adingabearen babeseta zenbait pertsonen hartzen dute euren gain: guraso agintea duenak edo tutoreak.

Beste aldetik, jaio denetik gizabanakoa bere ahalmena adinarekin bilakatu doan neurrian, bere jarduteko gaitasun mugatu hori mailakatu ahal izango da.

1. Adingabearen egoera juridikoa

Adingabe oro beren onurarako legez eraturik dagoen babesaren menpe daude

(guraso agintea edo tutoretza). Adingabea besteren menpekoa da, ez du jarduteko gaitasun orokorrik, eta horren ondorioz legezko ordezkari behar du.

Agintearen titularrak (tutoreak, gurasoak) adingabearen legezko ordezkariak dira eta honen ondorioz, adingabeak ez du parte hartzen burutzen duen egintza juridikoan, bere ordezkariak baino. Baina adingabearen jarduteko gaitasuna bilakatzen den neurrian, nahiz eta murriztua izan, ez da maila berean murriztua izango eta zenbait egintza juridiko burutzeko bere kabuz jardun ahal izango du (ordezkaritzarik gabe) edo parte hartu ahal izango du guraso agintea duenak edo tutoreak lagundurik.

Adingabeak, ordezkariaren bitartez gauzatu beharreko egintza juridikoa, bere kabuz burutzen duenean, deuseztagarria izango da eta bai ordezkariak berak zein adingabeak berak adin nagusikoa denetik lau urte buruan deusezta dezakete.

KZren 162. artikuluan, guraso aginteari dagokionez, eta 267. artikuluan, tutoretzari dagokionez, legezko ordezkariaren norainokoa arautzen da. Aipatu KZren 162. artikuluan xedatzen da zein kasutan adingabeak bere kabuz jardun dezaken legezko ordezkariarik gabe, izan ere, honako hauek dira:

- a) Adingabeak, legearen aginduz, zenbait egintza burutzeko bere kabuz aitzeko ahalmena duenean.
- b) Guraso edo tutorearen interesen eta seme-alaben interesen artean gatazka dagoenean, eta horretarako adingabearen defendatzailea izendatuko da.
- c) Ordezkararen administratibotik at dauden ondasunei buruzko egintzak.
- d) Nortasun eskubideei buruzko egintzak, adingabeak, bere heldutasunaren arabera, bere kabuz egin ditzakeenean.

2. Adingabearen gaitasuna

Abiapuntua adingabearen gaitasunarena da, bere ulermenaren gaitasunaren arabera murriztua egon arren. Gaur egun, ezgaitzea epai baten bitartez egin daiteke soilik (KZren 199 art.) eta legeak xedatzen dituen kariengatik. Adingabetasuna ez da horietariko bat.

Adingabearen jardute esparruak

2.1. Familia esparrua

a) Adingabeari, 12 urtetik aurrera, epaileak entzungo dio bere gurasoen deuseztasun, banantze eta dibortzioko prozeduretan epaileak seme-alabak zaintzeko eta hezkuntza emateko neurriak hartzen dituenean (KZren 92.2 art.).

b) Bere familia propioa eratzeari dagokionez. Ezkontzeari dagokionez, erregela orokorra da emantzipatu gabeko adingabeak ez duela ezkontzeko gaitasunik (KZren 46.1. art.). Hala ere, eragozpen hori lehen instantziako epaileak leka dezake 14 urtetik aurrera. Azkenik, kontuan izan epailearen lekapenik gabe adingabea ezkontzen denean, ezkontza hori balioztatzen dela, adin nagusitasunaren ondoren, ezkontideak elkarrekin urtebetez bizi badira (KZren 75. art.).

c) Adingabeak ezkontzaz kanpoko seme-alabak aitor ditzake, kasu horretan, epailearen baimena izan behar du (KZren 121. art.).

2.2. Esparru pertsonala

- a) Adingabeak, 16 urte beteak dituen emantzipazioa eska dezake.
- b) Berebat, 14 urte bete dituen adingabeak auzotartasun zibila aukeratu ahal izango du.

2.3. Ondare esparruari buruzko egintzak

- a) Testamentua egin ahal izango du 14 urtetik aurrera.
- b) Dohaintzak onar ditzake, dena den, baldintzapekoak edo kostubidezkoak balira, legezko ordezkariak bere onespina eman beharko luke.
- c) Edukitzea eskura dezake. Dena dela, eskuratu duena administratzeko ordezkariaren jarduna beharko du.
- d) Adingabeak 16 urte bete dituen bere kabuz gauza ditzake "modu arruntean administratzeko egintzak", bere lan edo industriagatik eskuratu dituen ondasunen gainean. Modu arruntean administratzeko egintzak baino gehiago direnetarako, gurasoen edo tutorearen onespina beharko du.
- e) Adingabea, 14 urtetik aurrera, lekuko izan daiteke epaiketa batean.
- f) Eta azkenik, adingabeek bere kabuz erabili ahal izango dituzte egunerokotasunaren esparruko egintzak, hala nola Auzitegi Gorenaren 1991ko apirilaren 10eko epaia dela medio: *"Emantzipaturik gabeko adingabeek eguneroko bizitzan burutzen dituzte hamaika kontratu, jolas tokietara sartzeko, kontsumoko ondasunak erosteko eta zerbitzu publikoari dagozkionak eskuratzeko. Horretarako beren ordezkarien laguntza berezirik ez dute behar, haien isileko onarpena dagoela ulertzen baita"*.

iii) Emantzipazioa

Gaur egun, emantzipazio hitzarekin, guraso agintetik eta tutoretzapetik askatu den adingabearen egoera azaldu nahi da, adin nagusikoaren antzeko jarduteko gaitasuna duen adingabearena alegia. Adin nagusitasun eta adingabetasunaren arteko egoera da, adingabearen jarduteko gaitasunaren zabalkuntza suposatzen baitu.

Emantzipazioa egite formala da eta zenbait baldintza eta prozedurak bete beharko dira kasuan kasu. Emantzipazio mota guztiek galdatzen duten baldintza adingabeak 16 urte beteak izatearena da. Ezkontzagaritako emantzipazioaren kasuan, soilik, aipatu adinaren baldintza jaitsi daiteke 14 urtera (adin-eragozpenaren lekapena balu).

Kode Zibilak 314. artikuluan xedatzen ditu emantzipazioaren kariak: 1. Adin nagusitasuna 2. Guraso agintea erabiltzen duten gurasoek emandakoa 3. Epaileak emandakoa 4. Adingabearen ezkontzaren bidezkoa .

1. Adin nagusitasuna: nahiz eta artikuluko honek horrela xedatu, adin nagusitasuna ez da emantzipazio mota bat, jarduteko gaitasun osoa lortzea baizik. Kasu honetan, adin nagusitasunarekin guraso agintetik irteten dela adierazi nahi da.

2. Gurasoek emandakoa: KZren 317. eta 318. artikuluek xedatzen dute emantzipazio kari hau, eta honako baldintzak galdatzen dira

- a) Adingabeak 16 urte beteak izan beharko ditu.
- b) Adingabeak baimena eman beharko dio gurasoek aldebakarrez burututako egintza juridiko honi, adingabearen egoera pertsonala aldatzen baitu.
- c) Notarioaren aurrean eginiko eskritura publikoaren bitartez gauzatu behar da, edo Erregistro Zibilaz arduratzen den epailearen aurrera agertzearen bidez.

3. Epaileak emandako emantzipazioa: KZren 320. eta 321. artikuluetan

arautzen da, honako baldintzak beteaz:

- a) Adingabeak 16 urte beteak izan beharko ditu.
- b) Guraso agintearen menpe dagoen adingabeak berak eskatzen du emantzipazioa, eta adierazpen honek prozedura martxan jartzen du.
- c) Lehen instantziako epailea da emantzipazioa emateko eskuduna. Horretarako, epaileak kontuan hartuko ditu kasuan kasuko inguruabarrak, eta adingabearen gaitasuna. Hala ere, legeak xedatzen du zein kasutan komenigarritzat duen emantzipazioa ematea.

Goian aztertutako kasuetan, emantzipazioa Erregistro Zibilean inskribatu behar da, eta emantzipazio hori ezeztatzeko izango da.

4. Ezkontza bidezko emantzipazioa: KZren 316. artikulua honela xedatzen du: "*Ezkontzak zuzenbidez dakar emantzipazioa*". Hala ere, kontuan izan arestian azaldu dugun KZren 48. artikulua xedatzen duen epailearen lekapearen beharra.

BERE KABUZ BIZI DEN ADINGABEA

Kode Zibilak xedatzen du bere kabuz bizi den adingabearen egoera juridikoa 319. artikuluan. Hitzez hitz honela dio: "*Hamasei urtekoa baino nagusiagoa den semea edo alaba bere buruz bizi bada gurasoen adostasunarekin, hori emantzipatutzat joko da ondore guztietarako. Gurasoek adostasun hori ezeztatzeko dezakete*".

Egitatezko emantzipazioa deitzen zaio eta eragingarria izan dadin, hiru baldintza bete behar dira:

- a) Seme-alaba 16 urtez gorakoa izatea.
- b) Gurasoengandik banandurik independentziaz bizi behar du. Horrek ez du esan nahi beste bizileku batean bizitzea, ekonomikoki bere kabuz bizitzea baino eta bere erabakiak autonomiaz hartzea, bai norbere harremanetan, bai ondare harremanetan.
- c) Guraso edo tutorearen baimena izatea, bai espresuki zein isilekoa, guraso edo tutore horiek errespetatu eta onartzen baitute adingabekoaren askatasun hori.

Kasu honek gainerako emantzipazioaren kasuetatik urruntzen duten berezitasunak ditu, hauexek hain zuzen: Gurasoen adostasuna ezeztatzeak aukera, eta Erregistroan argitaratzeko beharrik eza. Azkenik, guraso agintea ez da azkentzen, gurasoek edozein momentutan berreskura baitezakete, adostasuna ezeztatuz.

10. EZGAITASUNA ETA GAITASUNA MUGATZEA

a) Ezgaitasuna

Ezgaitasunaren izaera murriztua da, legezko ustea adin nagusikoaren jarduteko gaitasunarena baita. Hortaz, pertsona bat ezgaitutzat hartzeko, beharrezkoa izango da epaileak horren aldeko ebaztea ematea, zeina bakarrik hartu ahal izango den legeak aurreikusten dituzten egoeretan. Aipatu ebazteko ustezko ezgaituarentzako berme guztiak izango dituen prozedura baten ondorioa izango da. KZren 199. artikuluan aipatu printzipioa jasotzen da. "*Norbait ezgaia dela adierazteko, nahitaezkoa da horretarako epaia ematea legeak ezarritako arrazoen ondorioz*".

Ezgaitasunari buruz indarrean dagoen legeriaren oinarria Konstituzioan dago eta honen aldarrikapenaren ondorioz Kode Zibilak 1983. urtean izan zuen aldaketan, zeina 1983\13. urriaren 24ko Legearen bitartez egin baitzen. Aipatu lege honek Kode

Zibilaren 199. eta 313. bitarteko artikulak aldatu zituen. Gero, 1/2000eko Prozedura Zibilar buruzko Legeak derogatu ditu ezgaitzeko prozedurari dagozkion artikulak, alegia 202tik 214ra, eta PZLk berak arautzen du ezgaitzeko eta zarrastela aldarrikatzeko prozedurak 756. art.tik. 763. art.ra bitartean, hain zuzen.

Kariak. Gaixotasunak eta adimen-urritasunak

KZren 200. art.aren arabera ezgaitzearen arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan.

Adingabea ere ezgai daiteke, ezgaitzeko kari bat dagoenean eta adin nagusitasunean iraungo duela uste denean.

Gaixotasun edo akats fisikoak, berez, ez du pertsona bat ezgaitzen. Hori gertatzeko beharrezkoa da akats edo gaixotasun horrek adimen-urritasuna eragitea, edo honen ezean, pertsonaren berezko gaitasunean duen eraginagatik bere interesen alde erantzukizunez jokatzeko oztopatzea.

Zalantzarik eza ere badaude, kasu, alkoholismoa edo droga mendetasuna. Azken hauetan, medikuntzan ez dago adostasunik gaixotasun gisa sailkatzeko orduan. Dena den, adimen-urritasun bezala sailka daitekeela uste da.

Ezgaitze prozedura

Ezgaitze prozedura Prozedura Zibileko Legean arautzen da. Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak, deituriko atalean, 756 art.tik 763 art.ra.

756. art. : Eskumena *“Gaitasunari eta zarrastelkeria adierazpenari buruzko demandak aztertzeako eskuduna da Lehen auzialdiko Epailea”*

757. art.: Legitimazioa. Demanda aurkeztu dezake lehendabizi ezkontide edo egitatezko bikoteak, ondorengoek eta hauen ezean aurreko ahaideak edo anai-arrebak. Ministerio fiskalak ere, arestian aipatu ahaiderik ezean legitimazioa du ezgaitze prozedurari hasiera emateko.

758. art.: Demandatua bertaratzea. Ustezko ezgaituak ere prozeduran ager dezake bere burua. Honek abokatu bat izenda dezake bere defentsarako eta ez balu berak izendatu, ofizioz ezarriko zaio. Agertuko ez balitz Ministerio fiskalak defendatuko du.

759. art. Frogak eta entzunaldiak: Beste edozein prozeduran egiten diren forgez gain, Auzitegiak ustezko ezgaiaren ahaiderik hurbilenak entzun, ezgaia bere kabuz aztertu eta beharrezko eta egokiak diren adituen txostenak aginduko ditu

760. art.: Epaia: Epaiaren ondorioak: epaiak ezgaituaren jarduteko gaitasunean eta bere egoera pertsonalean ezarriko ditu ondorioak. Izan ere, ezgaitze epai guztiek ez dute eduki berdina, Prozedura Zibilaren Legearen 760 artikularen arabera jarduteko gaitasunari eta egoera pertsonalari ezarriko zaizkion mugak dagokion kasuari egokitu behar baita.

Epaileak bere ebaztan zein ezgaitasun motaren aurrean gauden zehaztuko du eta jarduteko gaitasun eza osatzeko zein babes sistema ezarriko duen erabakiko du. Epaileak erabaki dezake kasuan kasu, erabateko ezgaitzearen aurrean gauden (adingabeko egoerara parekatuz) edo jarduteko gaitasuna partzialki mugatua duela. Azken honetan, zenbait jarduera juridikotarako soilik mugatuko baita pertsonaren

jarduteko gaitasuna.

Epaiak ez du ezgaituaren nortasunaren eremuan eraginik izango. Bada, ezkon daiteke, boto eskubidea soilik ukatuko zaio espresuki epaiak horrela adieraziko balu, e.a.

761. art.: Gaitasuna berreskuratzea eta ezgaitzearen norainokoa aldaraztea.

Ezgaitze adierazpena atzera bota daiteke gerora gaixotasunak edo akats fisiko edo psikikoak desagertuko balira, PZLren 761 artikulua xedatzen duen moduan. Dena dela, beharrezkoa izango da epaileak horren alde emandako beste auzitegi erabaki bat.

b) Zarrastelkeria

Zarrastelkeriak ondarearen administrazioan neurrigabeko jokaera adierazten du, ondarea galtzeko edo gutxitzeko arriskuan jarriz familiaren kalterako.

Zarrastela eta administratzaile txarra ez da gauza bera, zarrastelak etengabeko joera adierazten du bere ondarea gastatzen eta aldi berean, bere ahaide edota ezkontidearen bizitzeko bitartekoak arriskatuz.

Halere, zarrastelkeriak ez du zerikusirik nortasuneko neurrigabeko jokaerak erakusten dituenarekin, zarrastelkeriak bi ezaugarri ditu, eta horien barnean kokatu beharko dugu soilik. Hara nola, alde batetik, neurrigabeko jokaera erakusten du ondarearen administrazioari dagokionez, soilik, arestian esan dugunez, eta bestetik, zarrastelak bere jokaerarekin familiaren interesak arriskuan jartzen ditu.

Prozedura

Hau ere, Prozedura Zibileko Legeak arautzen du, artikulua berberetan, 756. art. tik 763. art. ra bitartean.

1. PZLren 756 artikulua araberan, auziaren eskumena Lehen Auzialdiko Epaileari dagokio.

2. Legitimazioa: zarrastelkeria adierazpena eskatzeko legitimaturik daude (PZLren 757,5. art.aren arabera) soil-soilik ustezko zarrastelarengandik mantenuak jasotzen dituzten edo erreklamatzeko moduan dauden ezkontidea, ondorengoak eta aurrekoak Ministerio fiskalak ere, arestian aipatu ahaiderik ezean legitimazioa du ezgaitze prozedurari hasiera emateko, eta zarrastelak berak demandatua gisa zuzenean parte hartzen du (PZLren 758. art.). *“Ustezko zarrastelarengandik mantenua jasotzen dituzten edo mantenua erreklama dezaketen ezkontideak, ondorengoak, aurrekoak edo horien legeko ordezkariak bakarrik eska dezakete zarrastelkeria adierazpena.*

Legezko ordezkariak zarrastelkeria adierazpena eskatu ezean, Fiskaltzak eskatuko du”.

Beraz, ustezko zarrastelaren egitatezko bikoteak ezin du eskatu.

3. Epaiak emandako adierazpenak zarrastelaren jarduteko gaitasuna mugatzen du eta bere alde arituko dena ordezkari gisa. Zarrastelkeria adierazten duen epaiak zehaztuko ditu ordezkariaren adostasunik gabe zarrastelak burutu ezin dituen egintzak (PZLren 760.3. art.).

